Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputatu Nagusiaren Alorra

# Justifikazio memoria “Gazteak euskaraz etorkizuna eraikiz” programa diseinatu eta kudeatzeko zerbitzua kontratatzeko (espedientea: 2020001CO500)

**Gaien aurkibidea**

1 - Testuingurua eta zergatia
2 - Xedea
3 - Sorta banaketarik ez
4 - Lizitazio aurrekontua, balio zenbatetsia eta iraupena
5 - Esleipen irizpideak
6 - Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa
7 - Kaudimen teknikoa
8 - Baliabide pertsonalak atxikitzeko baldintza
9 - Kontratua gauzatzeko baldintza bereziak
10 - Aurrekontu esleipena eta prozedura
11 - Helburu estrategikoen lotura

Eranskina:
Irizpide kualitatiboen eta kuantitatiboen balioespena

# Memoria justificativa para la contratación del servicio de diseño y gestión del programa “Gazteak euskaraz etorkizuna eraikiz” (exp. 2020001CO500)

**Índice de materias**

1 - Contexto y justificación
2 - Objeto
3 - No división por lotes
4 - Presupuesto de licitación, valor estimado y duración
5 - Criterios de adjudicación
6 - Solvencia económica y financiera
7 - Solvencia técnica
8 - Requisito de adscripción de medios personales
9 - Condiciones especiales de ejecución del contrato
10 - Consignación presupuestaria y procedimiento
11 - Vinculación con objetivos estratégicos

Anexo:
Valoración de criterios cualitativos y cuantitativos

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputatu Nagusiaren Alorra

**1 - Testuingurua eta zergatia**

Gipuzkoako Foru Aldundia, EAEko gainerako herri administrazioko erakunde guztiak bezala, loturik dago hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubideari. Euskadiko Autonomia Estatutuak eta 10/1982 Oinarrizko Legeak, azaroaren 24koak, euskararen erabilera normalizatzeari buruzkoak, ezarri zuten hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubide orokorra. Araubide oroko horrek zenbait beharkizun ezartzen dizkie herri administrazioei, bi hizkuntza ofizialen erabileraren esparruan.

Aipatutako 10/1982 Oinarrizko Legeak 5. artikuluan xedatzen du herritarren eskubidea dela, besteak beste, aldizkariak eta irrati-telebistetako eta beste hedabideetako emanaldiak euskaraz jasotzeko eskubidea. Eskubide horren hurreneko, herri aginteen betebehartzat ezartzen die eskubide horren erabilera ziurtatzea, eraginkorra eta benetakoa izan dadin.

Xehekiago, legearen hirugarren kapituluak (22-25 artikuluetan) zehazten ditu herritarren eskubideak euskaraz jasotzeko hedabideen informazioa, besteak beste irudiaren eta soinuaren grabazioetan.

Legek herri aginteei egozten dizkien betebehar orokor horiei erantzun nahirik, Gipuzkoako Foru Aldundiak, *Etorkizuna Eraikiz* programaren bitartez, zenbait ekimen antolatu izan ditu, euskarazko ikus entzunezkoaren sorkuntza eta kontsumoa areagotzeko.

Horrela, Donostiako Tabakalera Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroaren barruan, 2DEO zentroa sortu du, euskarazko ikus-entzunezko sormen laboratategia, sektore profesionalari bideratua eta bereziki publiko gazteenekin konektatuko duten euskarazko ikus-entzunezko eduki eta formatuetan esperimentatuko duena.

Bestalde, azterlan bat ere bultzatu zuen, 2017ko azaroan EHUko IMG/MAC ikertzaile taldeak egindakoa, Gipuzkoako nerabe euskaldunen artean euskarazko ikus-entzunezko edukien kontsumoaz eta sorkuntzaz.

**1 - Contexto y justificación**

La Diputación Foral de Gipuzkoa está, como el resto de órganos de la administración pública de la CAV, sujeta al régimen de doble oficialidad lingüística. El Estatuto de Autonomía del País Vasco y la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, Básica de Normalización del uso del euskera establecen el marco general de la doble oficialidad lingüística, que conlleva determinadas obligaciones de las administraciones públicas, relativas al uso de las dos lenguas oficiales.

El artículo 5 de la citada Ley 17/1982 establece como un derecho ciudadano, entre otros, el derecho a recibir en euskera publicaciones periódicas, programaciones de radio y televisión y de otros medios de comunicación. De modo correlativo, señala como un deber de los poderes públicos la garantía del ejercicio de tal derecho, para que sea efectivo y real.

Más en concreto, el capítulo tercero de dicha ley (art. 22-25) especifica el derecho ciudadano a recibir información en euskera, también en lo que se refiere a los medios de reproducción de imagen y sonido.

En cumplimiento de los deberes genéricos que la ley encomienda a los poderes públicos, la Diputación Foral de Gipuzkoa, a través de su programa *Etorkizuna Eraikiz*, ha puesto en marcha diversas iniciativas con el fin de incrementar la creación y el consumo de productos audiovisuales en euskera.

Así, dentro de Tabakalera (Centro Internacional de Cultura Contemporánea) ha impulsado la creación de 2DEO, laboratorio de creación de contenidos audiovisuales en euskera, destinado al sector profesional, con la misión de experimentar en contenidos y formatos audiovisuales en euskera que conecten en especial con el público joven.

Por otra parte, impulsó también un estudio realizado en noviembre de 2017 por el equipo de investigadores IGM/MAC de la UPV-EHU, sobre hábitos de consumo y creación de audiovisuales en euskera entre adolescentes en Gipuzkoa.

Ikerketa horren emaitzetatik ondorioztatzen da euskarazko ikus-entzunezkoaren publiko potentzialak sustatzeko politika berritzaileak diseinatu beharra dagoela, bereziki publiko gazteenei zuzendutakoak, euren aisialdian eta pantailako edukiak kontsumitzerakoan lehenetsiko duten hizkuntza euskara izango bada.

Testuinguru horretan sortzen da, hain zuzen ere, programa bat eratzeko aukera, 14-6 urte bitarteko biztanleriaren artean euskarazko ikus-entzunezkoen kontsumoaren esparruaren alderdi guztiak bilduko dituena, hau da, prestakuntza eskaintzea, sorkuntza prozesuan laguntzea, partekatze eta hedapen bideak erraztea eta sarbidea egiteko aukerak ematea.

Gaur gaurkoz, kontratu hau sustatzen duen Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiaren lanpostuen zerrendan ez dago lanposturik, bere titulazioan, zereginetan edo esperientzian egokitzen denik halako programa baten ezaugarriek eta edukiek eskatzen duen espezializazio mailarekin. Nabarmen gelditzen da, beraz, era honetako zerbitzu baten kontratazioa egin behar dela.

**2 - Xedea**

Espediente honen xedea da 14 eta 16 urte bitarteko Gipuzkoako nerabeen artean euskarazko ikus-entzunezko edukien sorkuntza, hedapena eta kontsumoa sustatuko duen programa bat diseinatu eta kudeatzea.

**3 - Sorta banaketarik ez**

Kontratuaren xedea garatuko da helburu bakar bat duten hainbat jardueren bidez. Helburu nagusi hori da, hain zuzen ere, euskarazko ikus-entzunezko edukien sorkuntza, hedapena eta kontsumoa dinamizatzea 14 eta 16 urte bitarteko Gipuzkoako nerabeen artean. Helburu horri begira garatuko diren jarduerak, berriz, arlo hauetan bilduko dira:

- Sortzaileentzako prestakuntza.
- Sorkuntza faserako laguntza.
- Lehia baten bitartez partekatzea.

De los resultados de dicho estudio se desprende la necesidad de diseñar políticas innovadoras dirigidas en especial al sector joven, que impulsen al púbico potencial de medios audiovisuales a optar prioritariamente por contenidos en lengua vasca en su consumo relacionado con el ocio y contenidos accesibles desde su pantalla.

Es en este contexto donde surge la posibilidad de crear un programa capaz de dinamizar, entre la población de 14 a 16 años, todos los aspectos relacionados con el consumo audiovisual en euskera mediante pantallas móviles, es decir, ofrecer formación, ayudar en el proceso creativo, facilitar su distribución y brindar oportunidades de acceso.

En la actualidad, en la relación de puestos de trabajo de la Dirección General de Igualdad Lingüística, promotora de este contrato, no hay ningún puesto de trabajo cuya titulación, cometidos o experiencia sean acordes con el grado de especialización exigible para diseñar llevar adelante un programa con semejantes características y contenido. Resulta, por ello, imprescindible la contratación de dicho servicio.

**2 - Objeto**

El objeto de este expediente es la contratación del servicio de diseño y gestión de un programa de incentivación de la creación, difusión y consumo de contenidos audiovisuales en lengua vasca entre jóvenes de entre 14 y 16 años en Gipuzkoa.

**3 - No división en lotes**

El objeto del contrato se desarrollará a través de actividades que se encuadran dentro de un propósito común, como es el de dinamizar la creación, difusión y consumo de contenidos audiovisuales en euskera entre jóvenes de entre 14 y 16 años en Gipuzkoa. Las mencionadas actividades se enmarcarán en los siguientes apartados:

- Formación para creadores.
- Ayuda en la fase de creación.
- Participación competitiva.

Nahiz eta hiru jarduera mota bereizi daitezkeen, eginkizun tekniko eta ekonomiko bakarrari erantzuten diote, eta lotura operatiboa dute elkarren artean. Beraz, ez da sorta banaketarik egin behar.

Alderdi teknikoari dagokionez, adierazi behar da hiru jarduera horien xedea dela euskarako ikus-entzunezko edukien sorkuntza eta kontsumoa indartzea. Hori dela eta, metodologia eta laneko dinamika bakar batetik heldu behar zaie jarduera horiei, programaren alderdi guztietan ikuspegi homogeneo bat eskaini ahal izateko. Bestela, esleipendun desberdinak edukiko bagenitu jarduera desberdinetarako, eta, beraz, metodologia eta dinamika desberdinak edukiko bagenitu, disfuntzioak sortuko lirateke zerbitzuaren exekuzioan, prestazioaren kalitatean, nahiz programak lortu nahi dituen helburuen lorpenean.

Zeregin ekonomiko eta operatiboei dagokienez, adierazi behar da balizko sorta banaketa horrek murriztu egin dezakeela zerbitzu prestazioaren eragimena, eta neurriz gaindi zaildu dezakeela Gipuzkoako Foru Aldundiaren laneko antolaketa, esleipendun desberdinekin planifikatu eta koordinatu beharko bailuke. Izan ere, proiektua esleipendun batek baino gehiagok gauzatuko balu, Gipuzkoako Foru Aldundiak berak koordinatu beharko lituzke jarduera guztiak, esleipendunek ez luketelako edukiko zerbitzuaren ikuspegi orokorra, eta asmoa ez da zeregin horri kontratua sustatzen duen zerbitzutik heltzea.

Are eta gehiago, zerbitzua ongi gauzatzeko, bidean sor daitezkeen eskari desberdinei ongi erantzun behar zaie, kontuan hartuta, gainera, eskari horiek gorabeheratsuak izan daitezkeela kontratuaren gauzatze aldian zehar. Ondorioz, ezinbestekoa da zerbitzuaren ikuspegi orokorra izatea, eta gorabeheren aurrean (jardueren bikoizketak, giza baliabideen kudeaketa, gorabehera propioak eta abar) erantzun egokia emateko beharrezkoa den malgutasuna eta gaitasuna izatea; eta hori lortzen da soilik zerbitzua ikuspegi integraletik kudeatu eta exekutatzen bada.

Si bien pueden diferenciarse tres tipos de actividades, todas ellas responden a una única función técnica y económica, y guardan entre sí un vínculo operativo, por lo que no procede su división en lotes.

En lo que respecta al aspecto técnico, cabe señalar que las tres actividades consisten, en última instancia, en dinamizar la creación y consumo de contenidos audiovisuales en euskera, por lo que resulta necesario abordarlas desde una única metodología y dinámica de trabajo, para ofrecer así una perspectiva homogénea en los distintos apartados del programa. Diferentes adjudicatarias para diferentes actividades y, por tanto, diferentes metodologías y dinámicas, generarían disfunciones en la ejecución, en la calidad de la prestación, así como en la consecución de los objetivos que persigue el programa.

Con respecto a las funciones económica y operativa, conviene indicar que la eventual división en lotes mermaría la eficiencia en la prestación de los servicios y complicaría en exceso la organización del trabajo para la Diputación Foral de Gipuzkoa, por tener que planificar y coordinarse con posibles diferentes adjudicatarios. La participación de varias adjudicatarias en la ejecución del proyecto obligaría a la Diputación Foral de Gipuzkoa a ejercer las labores de coordinación entre las empresas y actividades, ya que las adjudicatarias no tendrían la visión del conjunto, cometido que no se pretende abordar desde el servicio promotor del contrato.

Más aún, la buena ejecución del servicio estará supeditada a responder de manera pronta y eficaz a las distintas demandas que se puedan ir planteando, probablemente con diferentes intensidades a lo largo del periodo de ejecución. Por tanto, requiere de la visión del conjunto, de la suficiente flexibilidad y capacidad de respuesta ante eventualidades (posibles solapes de actividades, gestión de medios humanos atendiendo sus propias eventualidades, etc.) que sólo se obtiene mediante la gestión y ejecución integral de la prestación.

Azaldutako guztiagatik, uste dugu ez dela bidezkoa kontratua sortetan banatzea, 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuenak, 99.3 artikuluaren b) puntuan xedatutakoaren arabera. Izan ere, aurretik zehaztu den moduan, sortetan banatzeak zaildu egingo luke zerbitzua, ikuspegi teknikotik, modu homogeneoan gauzatzea, eta, aldi berean, prestazio desberdinak koordinatzeko zailtasun handiak ekarriko lituzke.

Por todo lo expuesto, se considera que no procede la división del contrato en lotes, de conformidad con lo establecido en el apartado b) del artículo 99.3 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, ya que, tal y como se ha detallado previamente, la división en lotes dificultaría la ejecución homogénea desde el punto de vista técnico, a la vez que implicaría serias dificultades de coordinación de las diferentes prestaciones.

**4 - Lizitazio aurrekontua, balio zenbatetsia eta iraupena**

Kontratuaren bi urteko iraupenerako, lizitazioaren oinarrizko aurrekontua izango da 158.711,57 euro gehi BEZari dagozkion 33.329,43 euro guztira 192.041,00 euro batzen dutelarik.

Lizitaziorako oinarrizko prezioa kalkulatu da kontuan izanda 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuenak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duenak Espainiako ordenamendu juridikora, 100.2 artikuluan ezarritako printzipioak. Lizitaziorako oinarrizko prezioa gehienekotzat jotzen denez, hura gainditzen duten eskaintzak baztertu egingo dira.

Lizitaziorako oinarrizko prezioa finkatzeko, gastu kontzeptu hauek hartu dira kontuan, kasu bakoitzean zenbatekoa zehaztuta, kontratuaren bi urteko iraupenerako:

**4 - Presupuesto de licitación, valor estimado y duración**

Para los dos años de duración del contrato, el presupuesto base de licitación es 158.711,57 euros más 33.329,43 euros en concepto de IVA que suman 192.041,00 euros.

El precio base de licitación se ha calculado conforme a los principios establecidos por el artículo 100.2 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, por la que se trasponen al ordenamiento jurídico español las Directivas del Parlamento Europeo y del Consejo 2014/23/UE y 2014/24/UE, de 26 de febrero de 2014. El precio base de licitación tiene carácter de máximo. Por consiguiente, las ofertas que lo superen serán rechazadas.

Para establecer el precio base de licitación se han tenido en cuenta los siguientes conceptos de gasto, con importe calculado en cada caso para los dos años de duración del contrato:

| **Lizitaziorako oinarrizko prezioa / *Precio base de licitación*** | |
|---|---|
| gastu kontzeptua / *concepto de gasto* | euro zenbatekoa 2 urtean / *importe euros 2 años* |
| laneko kostuak / *costes de salarios* | 118.361,97 |
| kostu zuzenak (hornidurak, garraioa, komunikazioak eta gisakoak)/ *costes directos (suministros, transportes, comunicaciones y similares)* | 17.754,30 |
| zeharkako kostuak (% 10) / *costes indirectos (10 %)* | 13.611,63 |
| enpresaren irabazia (% 6) / *beneficio empresarial (6 %)* | 8.983,67 |
| kostuak guztira / *total costes* | 158.711,57 |
| BEZ % 21 /*IVA 21 %* | 33.329,43 |
| lizitaziorako oinarrizko prezioa guztira / *total precio base de licitación* | 192.041,00 |

Laneko kostuak (langileen ordainsariak) kalkulatzerakoan, aintzat hartu dugu, arlo honetako erreferentziazko lan hitzarmen bakarra denez, Ikus-entzuneko ekoizpen industriaren sektoreko lan hitzarmena –teknikariak–, 2017ko lansarien taulak onartuak izan baitziren Espainiako Gobernuaren Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioak emandako Ebazpenaz (EAO 2017-04-24).

Lan hitzarmen horretan ezarritako lansariak aplikatu ditugu kontratuaren zerbitzua bete ahal izateko beharrezkotzat jotzen den arduraldia gogoan izanda. Horrela, laneko kostutzat (118.361,97 €) hartu ditugu ekoizpen buru baten kategoriako urteko arduraldiari dagozkion lansariak (37.258,48 €) eta ekoizpen laguntzaile baten kategoriako urteko arduraldiari dagozkion lansariak (21.922,51 €), bien batura eginda.

Zenbateko horiek eguneratuta daude KPIk EAEn izandako bilakaeraren arabera, aipatzen ari garen lansarien taulak onartu zirenez geroztik 2017ko apirilean, 2019ko apirila bitarte (% 2,69ko igoera; iturria: Eustat).

Kontratua bi urteko iraupen eperako proposatzen da eta urte banako bi luzapen izan ditzake. Horrenbestez, ondorengo taulan agertzen da kontratuaren balio zenbatetsia. Kontratuaren balio zenbatetsia kalkulatzeko, kontuan hartu dira egin daitezkeen bi luzapenak.

En el cálculo de los costes salariales se ha tenido en consideración, como convenio de referencia para este ámbito, el Convenio colectivo del sector de la industria de producción audiovisual -técnicos-, cuyas tablas salariales para el año 2017 fueron aprobadas por Resolución del Ministerio de Empleo y Seguridad Social del Gobierno de España (BOE 2017-04-24).

Se han aplicado los salarios contenidos en dicho convenio colectivo a la dedicación que se estima necesaria para el servicio que se contrata. Así, el cálculo de los costes salariales (118.361,97 €) resulta de la suma del salario anual correspondiente a un puesto de categoría de jefe de producción (37.258,48 €) y del salario anual correspondiente a un puesto de categoría de ayudante de producción (21.922,51 €).

Dichos importes incluyen la actualización conforme a la evolución del IPC en la CAV desde la fecha de aprobación de las tablas citadas, en abril de 2017, hasta abril de 2019 (incremento de 2,69 %; fuente: Eustat).

El contrato se propone para 2 años, más dos posibles prórrogas de un año cada una. De esta forma, el valor estimado del contrato sería el que se indica en la tabla siguiente. En el cálculo del valor estimado se han contemplado las dos prórrogas.

| **Kontratuaren balio zenbatetsia / *Valor estimado del contrato*** | |
|---|---|
| kontzeptuak / *conceptos* | € zenbatekoa (BEZ gabe) / *importe (sin IVA)* |
| lizitazioaren oinarrizko aurrekontua / *presupuesto base de licitación=* | 158.711,57 |
| luzapena (2 urte) / *prórroga ( 2 años)* | 158.711,57 |
| **guztira / *total*** | **317.423,14** |

**5 - Esleipen irizpideak**

Esleipen irizpideei dagokienez, balio handiagoa eman nahi izan diogu formulen aplikazioaren bitartez zenbatetsi behar den eskaintza ekonomikoari, balio judizio baten arabera kuantifikatu daitezkeen irizpideei baino.

Eskaintza ekonomikoa balioesteko formulari dagokionez, proposatzen dugu kontratazio publikoaren kudeaketarako jardunbide egokiei buruzko gomendioetan (III. eranskina) jasotakoa, Diputatuen Kontseiluak 2018ko ekainaren 19an onartutako Gipuzkoako Foru Aldundiaren kontratazio prozeduren faseetan klausulak sartzeko jarraibideen barruan.

Bestalde, bi irizpide ezartzen dira, balio judizio baten arabera balioetsi beharrekoak, programaren diseinu orokorrarekin eta kontratuaren zereginetara atxikitzea proposatzen den lantaldearekin lotuak.

Memoria honen eranskinean jasotzen dira eskaintzen ezaugarri kualitatiboak balioesteko erabiliko ditugun alderdi teknikoak eta balioespen irizpideak. Balioespen osoaren barruan, balio judizio baten mende diren irizpideek balioespenaren % 45 hartzen dute, eta formula bitartez balioetsi beharreko eskaintza ekonomikoak, berriz, % 55.

**5 - Criterios de adjudicación**

En cuanto a los criterios de adjudicación, se ha optado por dar mayor valor a la oferta económica, cuya cuantificación depende de la aplicación de fórmulas, frente a aquellos criterios que puedan valorarse mediante juicio de valor.

Respecto a la fórmula de valoración de la oferta económica, se propone la que se recoge en el Anexo III. Directrices sobre buenas prácticas en la gestión de contratación, aprobada por el Acuerdo del Consejo de Gobierno Foral, de 19 de junio de 2018, sobre aprobación de las directrices para incorporar cláusulas en las diferentes fases de los procedimientos de contratación de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Por otra parte, se han adoptado dos criterios a valorar mediante juicio de valor, relacionados con el diseño general del programa y con el equipo de trabajo que se proponga adscribir al contrato.

En el anexo a la presente memoria, se recogen los aspectos técnicos y criterios de valoración que se utilizarán para valorar los aspectos cualitativos de las ofertas. En conjunto, los criterios cuya cuantificación dependa de un juicio de valor representan un 45 % de la valoración, y la oferta económica evaluable mediante la utilización de fórmulas supone el 55 %.

**6 - Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa**

Eskatzen da enpresa kontratu hartzaileak urteko negozio bolumena izatea, azkeneko hiru urte amaituen artetik negozio bolumen handieneko urteari dagokiona hartuta, 50.000 euroko edo handiagoko zenbatekoaz.

**6 - Solvencia económica y financiera**

Se exige que la empresa contratista tenga un volumen anual de negocios referido al año de mayor volumen de negocio de los tres últimos concluidos, por importe igual o superior a 50.000 euros.

**7 - Kaudimen teknikoa**

Enpresa lizitatzaileek azken hiru urteetan euskarazko ikus-entzunezkoen sorkuntzaren, hedapenaren edo kontsumoaren esparruetan egindako zerbitzu edo lan garrantzitsuenen zerrenda erantsi beharko dute.

**7 - Solvencia técnica**

Las empresas licitadoras deberán aportar una relación de los principales servicios o trabajos realizados en los últimos tres años relacionados con la creación, difusión y consumo de contenidos audiovisuales en lengua vasca.

Egiaztatu beharko da, organo eskudunaren ziurtagiriaz edo enpresarioaren adierazpenaz , gutxienez, azken hiru urtetan kontratuaren xedearen bezalakoa edo antzekoa duen lan bat burutu izana eta 10.000,00 euroko edo gehiagoko aurrekontu gauzatuarekin (BEZa barne).

Se deberá acreditar, mediante certificado del órgano competente o declaración del empresario, haber ejecutado en los últimos tres años un trabajo cuyo objeto sea igual o similar al del presente contrato y con un importe ejecutado igual o superior a 10.000,00 euros (IVA incluido).

**8 - Baliabide pertsonalak atxikitzeko baldintza**

Sailkapenaren edo kaudimen teknikoaren egiaztapenaren osagarri, enpresa lizitatzaileak hitzeman beharko du kontratua gauzatzeko atxikiko dituela gutxienez 2 langile, euskarazko ikus-entzunezko edukien sorkuntzaren, ekoizpenaren edo zabalkundearen esparruan 2 urteko esperientzia dutenak.

Giza baliabideak atxikitzeko baldintza hau ezartzen da kontratua gauzatzearen konplexutasun teknikoari behar bezala erantzun ahal izateko; izan ere, eskatuko diren funtsezko eginkizunak (prestakuntza-ekintzak ikus-entzunezkoen sorkuntzaren arloan; zuzeneko edo zeharkako laguntza ikus-entzunezko edukiak sortzeko fasean; ikus-entzunezko edukien lehiaketa edo prozesu lehiakor bat antolatzea) berariaz egokitu beharko dira nerabeen artean euskarazko ikus-entzunezkoen kontsumoak eta sorkuntzak bizi dituzten arazo espezifikoetara.

Baldintza hau betetzearen ondorioetarako, baliozkotzat joko dira euskarazko ikus-entzunezko edukiak sortu, ekoitzi edo hedatzearen arloan garatutako funtzio espezifikoak.

Aipatutako eremuetan eskatzen den esperientzia egiaztatu beharko da zerbitzua eman zitzaien enpresek emandako ziurtagirien bidez, zereginen deskribapen zehatza eta emandako zerbitzuaren iraupen zehatza behar bezala xehakatuta. Era berean, kontratua gauzatzera atxikiko diren bi pertsonen lan-bizitzaren ziurtagiria aurkeztu beharko da.

**8 - Requisito de adscripción de medios personales**

La empresa licitadora deberá completar la acreditación de su clasificación o solvencia mediante el compromiso de adscribir a la ejecución del contrato un mínimo de 2 personas, con experiencia de 2 años en el ámbito de la creación, producción o difusión de contenidos audiovisuales en lengua vasca.

Este requisito de adscripción de medios personales se establece para responder adecuadamente a la complejidad técnica de la ejecución del contrato, ya que los cometidos esenciales que se requerirán deberán adecuarse a la problemática específica que vive el consumo y creación de audiovisuales en euskera entre las personas adolescentes (acciones formativas en el área de creación de audiovisuales; ayuda, directa o indirecta, durante la fase de creación de contenidos audiovisuales; organización de un concurso o proceso competitivo de contenidos audiovisuales en euskera).

A los efectos del cumplimiento de este requisito, se considerarán válidas las funciones específicas desarrolladas en los ámbitos de la creación, producción o difusión de contenidos audiovisuales en lengua vasca.

La experiencia exigida en los ámbitos citados se deberá acreditar mediante certificados emitidos por las empresas a las que se prestó servicio, con descripción precisa de tareas y duración exacta del servicio prestado. Asimismo, se deberá aportar un certificado de vida laboral de las dos personas que se vayan adscribir a la ejecución del contrato.

**9 - Kontratua gauzatzeko baldintza bereziak**

Ezaugarri teknikoen agirian jasotzen diren balioespen irizpideez gain, baldintza administratibo partikularren agirian zenbait baldintza berezi aipatzen dira, kontratua gauzatzerakoan aintzat hartu beharrekoak, termino hauetan:

- *Hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren erregimenera lotzea*: kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea, Euskadiko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan ezarria eta Euskararen erabilera normalizatzeko 1982ko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak eta hori garatzen duten arauetan zehaztua (besteak beste, Euskararen erabilera normalizatzeko plana onartzen duena Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta bere organismo autonomoen jarduera esparruan 2018-2022 aldirako, GAO 2018-08-03).
- *Genero berdintasuna*: enpresa edo entitate esleipendunak kontratua gauzatzean sortzen den dokumentazio, irudi edo material orotan hizkuntzaren erabilera ez sexista erabili behar du; halaber, emakumeen irudi baztertzaileak edo genero-estereotipoak erreproduzitu daitezen ekidingo da, eta berdintasunezko balioak sustatuko dira.
- *Datu pertsonalen babesa*: kontratua gauzatzeak berekin dakar zerbitzua emango duen enpresa esleipendunak sartu behar izatea entitate kontratatzaileen esku dauden izaera pertsonaleko datu fitxategietan. Kontratua gauzatzeko beharrezko izan ditzakeen izaera pertsonaleko datuen erabilera egingo da izaera pertsonaleko datuen babesari buruzko 1999ko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren arabera. Horretarako, enpresa esleipendunak tratamenduaren arduradun izaera izango du, eta berariaz bere gain hartuko ditu indarrean dagoen araudiak izaera horretarako jasotzen dituen beharkizunak. Halaber, eta kontratu nagusiaren eranskin gisa, aipatutako 15/1999 Legeak 12.2 artikuluan aipatzen duen kontratua sinatzeko beharkizuna ere hartuko du.

**9 - Condiciones especiales de ejecución del contrato**

Además de los criterios de valoración recogidos en el pliego de prescripciones técnicas, en el pliego de cláusulas administrativas particulares se indican determinadas condiciones especiales de ejecución del contrato, en los siguientes términos:

- *Sujeción al régimen de doble oficialidad lingüística*: el contrato se halla sujeto al régimen de doble oficialidad lingüística establecido por el Estatuto de Autonomía del País Vasco en su artículo 6, y regulado por la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del euskera, y por la normativa que la desarrolla (entre otros el Plan de normalización del uso del euskera en el ámbito de actuación de la Diputación Foral de Gipuzkoa y de sus organismos autónomos para el período 2018-2022, BOG 2018-08-03).
- *Igualdad de género*: empleo en toda la documentación, imagen o material que se genere con motivo de la ejecución del contrato por la empresa o entidad adjudicataria de un uso no sexista del lenguaje, evitando además cualquier imagen discriminatoria de las mujeres o la reproducción de estereotipos de género y fomentando valores igualitarios,
